

FAMILIA-GATAZKAK SAIHESTEAREN GARRANTZIA

Familia osatzen du(t)en heldua(k), eredu d(ir)a seme-alabentzako. Helduak errazten du, familian ematen diren interakzio pertsonalak, sozialak...bateratzeko behar den egitura.


FAMILIATIK GATAZKA KUDEATZEKO ESTRATEGIA PREBENTIBOAK:

- Komunikazio familiarraren kalitatea eta kantitatea hobetu.
- Familiarteko harremanen kalitatea sendotu.
- Familia-gatazken intentsitatea eta maiztasuna murriztu.
- Guraso eta seme-alaben arteko harremana eta seme-alabek familiarekiko dutena sustatu.
- Seme-alaben portaeraren gainbegiratzea hobetu.
- Portaera-arau argiak eta koherenteak ezarri.

KOMUNIKAZIOA ETA MAITASUNA SUSTATU:

1. Komunikazio egoki baterako, seme-alabek egindako akatsak nabarmentzeko sermoi eta kritikez beteriko mezuak saihestu.
2. Zenbaitetan familiako komunikazioan, seme-alabei kezka sortzen dieten gaiak, haurtzaroan nahiz nerabezaroan, bigarren plano batera pasatzen dira. Izan ere, ohikoa izaten da eguneroko komunikazioa bestelako gaietan zentratzea, gatazka eragiten duten gaietan hain zuzen: etxerako lanak, ikasketak edota janzteko modua, besteak beste. Horregatik, seme-alaben kezka eta ilusioei denbora eskaini behar zaie, edozein momentuan adierazi nahi duten horri. Baliteke beraiek esandakoa helduon ikuspuntutik berebiziko garrantzirik ez izatea, baina entzun eta emozionalki laguntzen ditugula hauteman behar dute.
3. Gurasoek komunikazio egokia zailtzen duten oztopoez kontziente izan behar dute eta haiek gainditzen ahalegindu behar dira.
4. Gurasoak seme-alaben garapenean eragina izaten jarraitzen dute.





5. Familia harremanetan maitasuna eta komunikazioa oinarri direnean, eraginkorragoak dira kontrolerako estrategiak eta diziiplina eta nerabeek doitze emozional hobe eta portaera egokitzailagoak dituzte.
6. Helduek komunikazio libre eta espontaneoak sustatu behar dute.
7. Funtsezkoa da seme-alabek zer egiten ari diren jakitea baina ez ukazio edo galdeketa bidez.
8. Adin txikikoa aske sentitzeko eta zintzoki eta libreki komunikatzeko, helduek, konfiantza nahikoa izango duen familia klima sortu behar dute.
9. Kontrola gehiegizkoa bada eta muga zurrinak eta murriztaileak badira, portaera-arazoak eta jarrera bihurria eragin daitezke.
10. Seme-alabek arauak betetzeko eman beharreko baldintzak:
 - * Haurtzaroan nahiz nerabezaroan, ulertu egin behar dituzte arauak eta beharrezkoak direla hauteman behar dute.
 - * Parte hartu behar dute arauak ezartzeko orduan, bereziki nerabezaroan.



Bibliografia eta Webgune interesgarriak

- Garrido, V. (2005). Antes que sea tarde: cómo prevenir la tiranía de los hijos. Nabla Argitaletxea.
- Ovejero, A. (2005). La convivencia sin violencia. Recursos para educar. MAD Argitaletxea.
- http://www.bilbao.net/cs/Satellite?cid=1279101260448&language=es&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_ListadoConEntradilla

ETXADI. [0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako doako Orientazio Zerbitzua](http://www.etxadi.org) Egin zure kontsulta telefono bidez: 94405 1549 (asteartero: 11:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 18.30era) edo www.etxadi.org webgunean Urola Garaia Mankomunitateko inprimakia betez.